



# KIROLAK GURE HERRIAN

ANDONI

Beste urte bat igaro dugu kirol arloan eta denbora honetan zehar gertakizun asko izan ditugu. Hauen erresumena egin baino lehen, Orereta herriak dituen arazoekin emango diogu hasiera.

Denok dakizuen bezala, gure kiroldegi ospetsua oraindik geldirik dago, badarama zenbait urte inoren kezka sortzen ez dituela. Gertaera honek zenbait arazo erakartzen du, zeren eta gure herrirako dagoen frontoia oso gauza gutxi baita. Oreretan ditugun talde, elkarte eta kirola egin nahi duten pertsonak asko dira eta frontoia ematen dituen posibilitateak oso txikiak dira. Polikiroldegian lanak jarraitzeko asmoak zeuden, baina errealtateari begirada txiki bat emanez, hasieran bezala daude, eta zoritxarrez ez dakigu noiz konponduko diren. Baita ere atletismoko pista bat egiteko asmoak daude, lehen zegoenaren leku berberan, hau da, Gabierrotako aintzinako pistan. Lanak hasiak dira, baina herri honetan gauzak gertatzen diren bezala, oraingoz asmoak bakarrik dira.

Maiatza hilabetearen eskolarteko bigarren Olinpiadak ospatu dira. Olinpiada hauetan ikastetxe eta ikasleen partizipazioa nabarmena izan da. Orereta eta Oiartzun eta pasaiako herrien artean 16 ikastetxek parte hartu dute, 2.700 ikasleekin, neska-mutilen artean. Bederatzi kirol txapelketa ospatu dira eta azkenean maila desberdineko irabazleei bere dominak eskeini zaizkie, 900 hain zuzen, oroitzapen txiki batekin parte hartu duten ikasle guztiaei. Olinpiada hauek ez dira, antolatzaileek espero zuten bezain ondo atera. Guztira Olinpiada hauen presupuestoa 800.000 pezetakoa izan da.

Gure errepresentante handienei dagokienez zortea desberdina izan da. Futbolearen ez dira bete, denborada hasieran egin ziren planteamenduak. Touring futbol taldea hasiera batean mailaz igotzeko esperantzarekin hasi zen; horretarako futbolari onak zeuden. Lehen itzulian gauzak ezin hobeto joan ziren, txapelketaren lehen postuetan mantenduz, baina zoritxarrez gauzak okertzen joan ziren bigarren itzulian. Zenbait lesio, postu aldaketa jokalarien artean, Pako Ferreresen dimisio ekarriaz. Ramon Etxabe «Txitxa» jarri zen lehen entrenatzaile bezala, baina gauzak ez ziren konpondu, nahiz eta lehen emaitzak onak izan. Aukera asko egiten ziren, baina aukera hauek ez ziren asmatzen, denborada bostgarren postuan amaituz. Hurrengo denboradarako, Luciano Murillo, Errealaren jokalaria izandakoa lehen entrenatzaile bezala izango dugu, eta uste dugunez Touring asmoak hirugarren mailara higitzea izango dira.

Datorren denboradan eskubaloiko lehen mailan bi talde izango ditugu, Ereintza eta Oarso Las Banderas. Ereintza taldeak azkeneko

partiduetan lortu zuen maila salbatzea. Urtean zehar, nahiko arazo izan zituzten, lesioak, zenbait jokalaririk desplazamentuetara ezin joan... Horrela partidu asko galdu ziren egoera larria izanik bukaerarako, sei partidu falta zirenean. Hemendik aurrera gauzak seriooki hartu ziren eta Altube entrenatzailea jokalaririk bezala aritu zen bi partidutan. San Antoniok errekurtsio bat aurkeztu zuen txapelketa batzordearen aurrean eta honek partidua galduta bezala eman zuen, beste bi puntu kenduaz eta Altuberi jokatzeko aukera debekatu zitzaion. Hala ere jokalariek gogoz jokatuaz, azken partidua aurrera atera zituzten, azkeneko sei partiduetan hamaika puntu lortuaz. Ereintzak sanzioaren aurka errekurtsio bat aurkeztu zuen, bere arrazoi guztiak adieraziz. Azkenean puntuak bereskeini zitzaizkion, denborada hamargarren postuan amaituz.

Oarso La Banderasen denborada berriz oso desberdina izan da. Hauek bigarren mailan kokaturik, hasieratik denborada ona egin zuten. Igotzeko aukera izateko, beharrezkoa zen lehen bi postuetan gelditzea. Horrela izan zen, txapelketa gogor baten ondoren, bigarren postua lortuz, Zarautzen atzetik. Hilabeteko atsedena izan eta gero, preparazio gogor bat eramanez sektore fasea Lalinen jokatu behar izan zuten. Sektore-fase hau irabaztea beharrezkoa zen, azkeneko fasea jokatzeko aukera izateko. Garaipena lortu zuten Oarsokoek, eta zorionez azken fase hau Oreretako frontoian jokatu zen sei ekiporen artean, lau lehenak igoera lortuz. Oarsok bere denborada baieztatzeko bigarren postua lortu zuen eta honekin denborada hasieran jarri zuten proposamendua.

Oreretan badugu Rugby talde bat ere, ia bi urte direla sortua. Talde hau Rugby maite duten jendeaz osaturik dago. Beren asmoak ez dira kompetizio mailan jokatzeko, bakarrik afizio handiz rugbya ondo jokatzen ikastea. Horretarako partidu asko jokatzen dituzte ifar Euskadiko taldeen aurka. Hauekin dagoen diferentziak ikasteko aukera handiak ematen dizkie.

Berriz Erreterria Atletiko Taldeak, urte guztietan bezala, Erregetako krossa antolatzen du. Urte honetan, haurren artean izan da kross hau, gazteen arteko maila desberdinetan partizipazio handiarekin. Gabierrotako aintzineko pistan, pista berria eraikitzeko asmoak dituzte; ea egia egiten den bere instalazio txikia edukiz entrenatzeko aukera izanaz.

Amaitzeko eskerrak eman behar diegu Oreretako elkarte eta haur guztiaei, posible egiten dutelako zenbait kirolen promozio eta prestaketa, beren txapelketa desberdinak antolatuz. Hemen, hurrengo denboradan itxaropen handiak ditugu ea berri hobeak dakartzigun.